

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2011ko azaroaren 23a. VIII. urtea. 2.312. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Ekitaldi ugari izango dira Euskararen Egunaren harira

Abenduaren 3an ospatzen da euskararen aldeko eguna; Tolosan hainbat ekitaldi izango dira, tartean mintzadromoa izeneko

Ekitaldiak Galtzaundi euskara elkarteak, abenduaren 2an, eta hainbat gaztek, abenduaren 3an, antolatu dituzte **02**



Galtzaundi, Tolosako Udala, Aitzol udal euskaltegia eta hainbat ikastetxetako ordezkariak, abenduaren 2ko ekitaldien aurkezpenean. I.GARCIA

Larunbatetik aurrera txotxongiloen munduan murgilduko da Tolosa

Abenduaren 4a arte 21 konpainiren 84 saio izango dira Titirijain; krisia dela eta aurtan inoiz baino emanaldi gutxiago izango dira **03**



Miguel eta Ana Arretxe, Iriarte, Lopez de Etxezarreta eta Mendarte. M.U.

Frankismoan emakumeek jasandako errepresioa hizketagai gaur, Larraulen

Ander Leonek Saturrararen jazotakoaz hitz egingo du kultur etxean, 19:30ean; kultur asteak bihar jarraituko du sagardo dastatze batekin **06**

Elosgi parkeko jabeekin adostutakoa «oso positiboa» dela dio Tolosako Udalak

22 urteko aferaren ondoren, desjabetzearengatik 8.576.068 euro ordaintzea adostu dute; 2016ra arte dute ordaintzeko epea **04**

XIX. eta XX. mendeko Alegiako argazkiak, kultur etxean

Gaur 19:00etatik 20:30era ikusi ahal izango dira irudiak, kultur etxean; ostiralean 'Birakabareta' emanaldia izango da 22:00etatik aurrera **07**



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

Kondeko aldapa, 5
www.funerariavascongada.com



Gertu...

TOLOSAKO
HILETA ZERBITZUAK
BETLATOKI BULABEA

24 H..

943 670 040

Txotxongiloaren mundua Tolosari begira jarriko da datozen egunetan

Azaroaren 26tik abenduaren 4ra, 21 konpainien 84 saio ikusi ahal izango dira; ia denak konpainia europarrenak izango dira

Aranburu jauregian suitzar txotxongiloez osatutako erakusketa ikusi ahal izango da

Maier Ugartemendia Tolosa

Hilaren 26tik abenduaren 4ra, 29. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia ospatuko da, Tolosan. Aurten Suitzara ireki dute leihoa, eta aipatu herriko eta inguruko herrialdeak izan dira gonbidatu nagusiak.

Guztira 21 konpainiek parte hartuko dute Titirijai jaialdian, eta 84 saio izango dira. Behin ere baino gutxiago. Izan ere, 2007. urtean, esate baterako, 150 saio izan ziren eta aurten ia erdira jaitsi da saio kopurua. Arrazoia krisia da. Aurtengo edizioaren ezaugarria krisiak eragindako murrizketena izango da. Miguel Arretxe Titirijai-ko zuzendariak azaldukoaren arabera, «konpainia txikiagoak eta gertukoagoak» bilatu dituzte, eta emaitza jaialdi europarra izan da. Hau da, Suitza, Austria, Belgika, Bulgaria, Frantzia eta Espainiako konpainiak izango dira nagusi. Salbuespena 3 herrialde ezberdinetako (Argentina, Espainia, eta Mexiko) konpainiek osatutako produkzio bat da, *Pepo, ¿A dónde vas?* izenekoak.

Hala ere, kalitatea mantentzeko «izugarriko esfortzua» egin dute Ana Arretxe Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakariaren hitzetan.

Jaialdiko emanaldietarako sarrerak jada salgai daude Topic-eko leihatiletan, 17:00etatik 19:00etara. Prezioari dagokionez, saio bakoitzeko helduen sarrera 7 euro kostako da eta haurrena 4 euro. 5 saio ezberdinetako abonua ere eros daitezke. Helduen abonua 25 euroko kostua du eta haurrenak 12koa. Hirugarren urtez jarraian, sarreraren prezioa mantendu egin da.

Berrikuntzak

Krisiak jaialdian eragin nabarmena izan duen arren, hainbat berrikuntza izango dira aurten. Helduen saioak, 20:30etik 22:30era pasa dituzte berriz ere, jendearen eskaerei erantzuna emateko. Bestalde, eskola ordutegian ere DBH-ko ikasleei zuzendutako atal bat ireki dute. Bertan helduentzat diren saioak ikusi ahal izango dituzte, baina, adin horretarako egoiak izango dira.

Haur txikiak zuzendutako atala



Ikuskizunetarako sarrerak Topic-eko leihatilan eskura daitezke, 17:00etatik 19:00etara. HITZA

ere bultzatzen jarraituko dute, eta etxeko txikienei zuzendutako bi saio izango dira. Esate baterako, Euskal Herriko talde bakarrak eskainiko duen, *Elurrezko panpina* emanaldia, txikienei zuzendutakoa izango da.

Ohitura sortzen

Europako lurralde guztietan bezala, Suitzan ere bazen tradizio titiriteroa. Baina, tradizio hori gal-

du egin zen bi edo hiru mendetan zehar. Orain, tradizio «abangoardista eta txikia» sortzen ari dira. Orokorrean historia tradizionalak lantzen dituzte. *Flor de Lupin* saioa da ohitura horrekin hausten duena. Gazteei zuzendutako lan honetan Binnette Schroederren irudien liburuan oinarritutakoa bertsio berri bat da.

Urtero bezala, gonbidatutako herrialdearen txotxongiloen

osatutako erakusketa zabalduko dute Aranburu jauregian. Larunbatean bertan 18:00etan irekiko duten erakusketan Suitzako txotxongilo modernoak ikusiko dira.

Ibai Iriartek, Tolosako alkateak, tolosarrak zein inguruetakoa herritarrak «Tolosa gaztetzen duen» jaialdi honetan «parte hartza» gonbidatu zituen; mundu mailako «konpainiarik onenak» ikusteko aukera izango baita.

↓ 29. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren egitaraua

AZAROAK 26, LARUNBATA

■ 20:00. Topic zentroan Pro Rodopi taldearen (Bulgaria) *Basura por ciruelas* - 45 minutu.

AZAROAK 27, IGANDEA

■ 17:00. Leidoren Karen Shafer (Austria) taldearen *Zeheng He* - 60'.
■ 16:30 eta 18:00. Topic-en De Spiegel (Belgika) taldearen *Bamburby* - 40'.

AZAROAK 28, ASTELEHENA

■ 12:00 eta 15:00. Leidoren Karen Shafer (Austria) taldearen *Zeheng He* - 60'.
■ 11:00, 14:30 eta 18:00. Topic-en Les Bamboches (Suitza) taldearen *Krunk* - 50'.
■ 10:30 eta 15:00. Kultur etxean Oskar (Suitza) taldearen *Viajeros al tren* - 45'.
■ 11:00 eta 14:30. Gorosabel

auditorioan Michael Huber (Suitza) taldearen *Flor de lupin* - 45'.

AZAROAK 29, ASTEARTEA

■ 12:00 eta 15:00. Leidor antzokian Karen Shafer (Austria) taldearen *Zeheng He* - 60'.
■ 11:00, 14:40 eta 18:00. Topic-en Diset Teatre (Balear Uharteak) taldearen *Las hadas de la bella* - 50'.
■ 20:30 eta 22:30. Topic-en Mimaya (Herrialde Katalanak) taldearen *Arbequina* - 60'.
■ 10:30, 15:00 eta 18:00. Kultur etxean Marionnettes de Geneve (Suitza) taldearen *El paseo del rey* - 45'.
■ 11:00 eta 14:30. Gorosabel auditorioan Titiriguiriren (Madril) *El viaje de Martín* - 45'.

AZAROAK 30, ASTEAZKENA

■ 12:00 eta 15:00. Leidor antzokian Suforel (Frantzia) taldearen *No tengas miedo* - 45'.
■ 12:00 eta 22:30. Topic-en Sofie Krog (Gaztela-Leon) taldearen *La casa* - 55'.
■ 10:30, 15:00 eta 18:00. Kultur etxean Marionnettes de Geneve (Suitza) taldearen *El paseo del rey* - 45'.
■ 11:00 eta 14:30. Gorosabel auditorioan Ferman Cardama (Andaluzia) taldearen *4 alas entre el cielo y el mar* - 43'.

ABENDUAK 1, OSTEGUNA

■ 12:00 eta 15:00. Leidor antzokian Suforel (Frantzia). *No tengas miedo* - 45'.
■ 15:00 eta 22:30. Topic-en Les Helices (Suitza) taldearen *Un hueso en la boda* - 63'.
■ 10:30, 15:00 eta 18:00. Kultur etxean Michael Huber (Suitza) taldearen *Flor de lupin* - 45'.

■ 11:00 eta 14:30. Gorosabel auditorioan Buenos Aires titeres (Argentina), La Canela (Espainia), eta Seña y Verbo (Mexiko) taldeen *Pepo, ¿A dónde vas?* - 60'.

ABENDUAK 2, OSTIRALA

■ 12:00 eta 15:00. Leidoren Suforel (Frantzia) taldearen *No tengas miedo* - 45'.
■ 11:00, 14:30 eta 22:30. Topic-en Oskar (Suitza) taldearen *Viajeros al tren* - 45'.
■ 18:30. Euskal Herria plazako karpan Alauda Teatro (Gaztela-Leon) taldearen *Puppet Circus* - 60'.
■ 10:30, 15:00 eta 18:00. Kultur etxean Txotxongilo Taldea (Euskal Herria) taldearen *Elurrezko panpina* - 45'.
■ 11:00 eta 14:30. Gorosabel auditorioan Teatro Plus (Asturias) taldearen *Pequeños deseos* - 50'.

ABENDUAK 3, LARUNBATA

■ 13:00. Euskal Herria plazako karpan Alauda Teatroren (Gaztela-Leon) *Puppet Circus* - 60'.
■ 17:00. Kultur etxean La Gaviota (Madril) taldearen *Pascual Patroclo* - 50'.
■ 18:00. Topic-en Pro Rodopi (Bulgaria) taldearen *Basura por ciruelas* - 45'.
■ 19:30. Leidoren Espejo Negro (Andaluzia) taldearen *El increíble viaje* - 60'.

ABENDUAK 4, IGANDEA

■ 13:00. Euskal Herria plazako karpan Alauda Teatro (Gaztela-Leon) taldearen *Puppet Circus* - 60'.
■ 17:00. Leidoren La Gotera de la Azotea (Andaluzia) taldearen *Vienmo pequeño* - 60'.
■ 18:00. Topic-en Suforel (Frantzia). *Miedo? Por qué?* - 45'.

Irudia >



MUSIKARIAK XEXILI DEUNA OSPATUZ

Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasle eta irakasleak kalera irten ziren herenegun, Xexili eguna, musikariaren eguna, alegia, ospatze-

ko. Irudian ikusi daitezkeen ikasleez gain, akordeoilaria eta txarangare ere ibili ziren Alde Zaharrean barrena hainbat doinu eskainiz. IMANOL GARCIA

Irudia >



CECILIA G. DE GUILARTEREN OMENALDIA

Atzo omendu zuten Tolosan, Cecilia G. de Guilarte idazlea. Ibai Iriarte alkateak «pozik» agertu zuen bere burua, «beren herriaren alde guztia eman zutenak gogoratzeko garaia delako». Idazle eta kazetariaren kasuan, gainera, emakume izateak ekarri zizkion zailtasunak ere gogora ekarri zituen Iriar-

tek. Gaur egun garena ezagutzeko, izan ginena ezagutzearen beharraz ere aritu zen, eta Cecilia G. de Guilartez gain, «eskubide eta ideal batzuen alde borrokatu zuten beste hainbat tolosar ere» gogora ekarri zituen. Ana Mary Ruiz idazlearen alabak esker hitzak izan zituen guztientzat. ITZEA URKIZU

Udalak akordioa lortu du Elosegi parkeko jabeekin

Desjabetzeagatik 8.576.068 euro ordainduko ditu udalak; 22 urte iraun ditu Elosegi parkeko auziak

Sententzia honen ondoren, gainera, bi aldeek ezetzatze helegitea aurkeztu zuten Auzitegi Gorenearan, epaia bertan behera utzteko helburuz.

Datozen 6 urteetarako

Udalak parkearen jabeekin adostutako akordioaren ondorioz, desjabetzearengatik ordaindu beharreko diru kopurua 8.576.068 eurokoa izango da. Kopuru honetatik 576.068 euro 2006. urtean ordaindu zituzten, eta geratzen diren 8.000.000 euroak 2016. urte bitartean ordaindu beharko ditu Tolosa Udalak. Akordioaren bitartez, era berean, Auzitegi Gorenearan helegitea bertan behera utziko dute bi aldeek.

Udalak akordioa «oso positiboa» dela azaldu du, alde batetik, 22 urte iraun duen auzia konponbidean jartzen duelako, eta bestalde, prezioa murrizteaz gain, ordainketa luzatzea lortu dutelako, epeen bidez.

Dena den, Udal Gobuaren esanetan, «inbertsio honek zama handia sortuko dio udal altxortegiari datozen urteetan». Honen ondorio zuzen bezala nabarmendu dute, udalaren aurrekontuak nahiz inbertsiorako ahalmena «asko» mugatuko direla.

Honekin batera, ordea, herritarrei «baikortasun mezua» zabaldu nahi die udalak, eta elkartasunerako deia ere bai.

Itzea Urkizu

Tolosako Udala akordio batera iritsi da Montezkueko Elosegi parkearen jabeekin, eta 2009an Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak esandakoa baino 1.057.548 euro gutxiago ordaindu beharko du desjabetzea. Guztira, beraz, 8.576.068 euro ordainduko ditu udalak, Elosegi parkearen desjabetzearen truke.

Parkearen desjabetzearen afera 1989an hasi zen. Hain zuzen ere, urte hartan onartu ziren arau subsidiarioek, parke publikoaren izaera eman zioten Elosegi parkeari; eremua pribatua izanik, ordea, desjabetzearen bitartez publiko egitea erabaki zuten duela 22 urte.

Hainbat urtetan zehar, Tolosa Udalak eta Elosegi parkeko jabeek ez zuten salneurrik adostea lortu, eta beraz, auzia epaitegietara bideratu zuten. Modu honetara, 2009ko martxoaren 2an, Elosegi parkearen desjabetze prezioa 9.633.616 eurotakoa izango zela esan zuten Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak.



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Sausta Jatetxea

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Belate pasealekua, 7-8 behe Tolosa • Tel.: 943-65 54 53 www.sausta.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



2 Mikel Izagirre

Ile mozketa bat

Gorosabel, 27 behe Tolosa Tel.: 943-67 52 49 http://www.lasonet.com/mikel/

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



3 G puntua

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalderirako bi sarrera pare

Azaroak 27, Igandea • 17:30ean Tolosako Usabal Kirolegian

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53



4 Donostiako Aquariuma

Hiru lagunentzako bina sarrera

www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54



5 Lagu Aro GBC

Sarrera pare

Azaroak 27 • Igandea 18:00etan Donostiako Ilunben

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 55



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan, Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Ibarratik Misio Taldeko bi kide izan berri dira Indian bertan dituzten proiektuak ikusten; udan beste bi kide izan ziren Ekuadorren; abenduan, urtero bezala, Merkatu Txikia zabalduko dute.

Ekuador eta Indiara bisita aberasgarriak

Iñigo Terradillos Ibarra

Ibarratik Misio Taldea 1997. urtean sortu zen, eta ordu-tik, etenik gabe ari da behar-tsuenei zuzendutako garapenerako proiektuak finantzatzeko. Gobernu Kanpoko Erakunde Katolikoaren ekimenen artean daude etxebizitzaren eta eskolen eraikuntza, osasun zerbitzuak, alfabetatzea, emakumearen sustapena, haurrak babesean hartzea edo heziketa tailerrak. Garapen bidean dauden hiru lurraldetan dituzte proiektuak; Honduras, Ekuador eta Indian.

Hain zuzen ere, azken honetan, Indian, izan berri dira taldeko Xabier Aierza eta Mari Angeles Ganzarain. Sanand herrian azken bi urteetan erabilerari anitzeko gela bat eraikitzen egon dira, eta gela bukatuta ikusi dute. «Eskolak emateko, emakumeei zuzendutako ikastaroak egiteko, bilerak egiteko, haurren eskolaz kanpoko jardueretarako... erabiltzen ari dira dagoeneko. Oso gustura geratu gara ikusi dugunarekin», azaldu du Aierzak.

Indian duten proiektu berria lurraldearen iparraldean gauzatu dute, eta tribuei zuzendutako izango da, gaztetxoek, hain zuzen. «Haur asko eskolatik oso urrun bizi dira, eta horregatik oso zail egiten zaie joatea. Horri irten-bidea emate aldera, egoitza bat egin nahi dugu haurrak eskola egunetan bertan bizi daitezela», gaineratu du. Hilabete honetan bertan hasiko dira egoitzaren lehen harriak jartzeko.

Udan, Ekuadorren

Bestalde, Ibarratik Misio Taldeko Benita Azurmendi eta Joxean Irastorza Ekuadorren izan ziren udan bi hilabetez. Euren alaba Izaskun Azurmendi bertan izan da bost urtez lankide boluntario bezala lanean, eta oraingoan bere aita-amak joan dira Ekuadorko errealitatea gertutik ezagutzera. «Pasa den urtean erabilerari anitzeko egitura bat eraikitzeko proiektuarekin hasi ginen, eta berriak eraikuntza nola geratu den ikusteko aukera izan dute; era berean, hurrengo proiektua zehazteko une honetan zein behar dauden ere jakin ahal izan dute».

Hondurasen, berriz, txaboletan bizi diren herritarrei laguntzera bideratzen dituzte proiektuak. «Aurten adreiluzko 4 etxe eraiki ahal izan dituzte hemendik bidalitako laguntzekin, eta hurrengo urtean ere lan berarekin jarraitu nahi dugu», dio Xabier Aierzak.

Proiektu hauek aurrera eramanez, izateko Ibarrako eta Legorretako udalen eta Laskorain ikastolaren «ezinbesteko» laguntza izan dute.

Abenduan, merkatu txikia

Abenduan zabalduko du misio taldeak urteroko Merkatu Txikia San Bartolome elizaren ondoko lekuan, eta bertan bildutakoa hiru lurraldeetan dituen proiektuetara bideratuko dute. Aurretik, ordea, bertan salgai jartzeko materiala bilduko dute, eta beste behin herritarren laguntza eta parte hartzea eskatu dute.



Ibarratik Misio Taldeko kideak Indian, bertako ikasleekin, iragan hilabetearen eginiko bidaian. HITZA



Benita Irastorza eta Joxean Azurmendi udan izan ziren Ekuadorren, bi hilabetez. HITZA



Hondurasen txaboletan bizi direnentzat etxeak eraikitzen. HITZA

Errausketa zerbaitzuen berria martxan!
Errausketa, ibe proposatzen.

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008

TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Bertso bazkarirako txartelak erosteko epea gaur amaitzen da

Kultur astearen barruan, Ander Leonek hitzaldia eskainiko du Saturraranen gertatutakoaz

Asier Imaz Larraul

Kultur astea astelehenean hasi zen, eta gaur, 19:30ean, Ander Leonek hitzaldia eskainiko du kultur etxean. Gaia ondorengo izango da: *Emakumeekiko errepresioa frankismoan. Saturrarango adibidea*. Horrez gain, gaur amaituko da larunbatean izango den bertso bazkarirako txartelak erosteko epea. Horretarako, 21:00ak baino lehen, herriko elkartera edo ostatura joan behar da txartelak erostera. Hilaren 26an, Aitor Mendizabal eta Amaia Agirre ariko dira bertso-tan Larraulen.

Biharko egunari dagokionez, sagardo dastatzea egingo dute Katillu-Txulo elkarteak, Sagardo Elkartearen eskutik. Ostiralek aurrerako ekitaldiak, azkenik, egun guztian zehar banatu dituzte.

↓ Egitaraua

GAUR, AZAROAK 23

■ **19:30ean.** *Emakumeekiko errepresioa Frankismoan. Saturrarango adibidea.* Hitzaldia, Ander Leonen eskutik, kultur etxean.

BIHAR, AZAROAK 24

■ **19:00etan.** Sagardo dastatzea, Sagardo Elkartearen eskutik, Katillu-Txulo elkarteak.

ETZI, AZAROAK 25

- **17:00etan.** Urmeentzako merienda.
- **Ondoren.** Eskulanak, Katillu-Txulo elkarteak.
- **18:30ean.** Larraul 2012 Eskola Txikien Festaren herri aurkezpena.
- **19:30ean.** Hernaniko Ozenki abesbatzaren emanaldia, musika tresnen laguntzarekin, San Esteban elizan.
- **22:00etan.** Mus txapelketa Katillu-Txulo elkarteak.

AZAROAK 26, LARUNBATA

- **12:00etan.** Idi proben erakustaldia.
- **14:00etan.** Bertso bazkaria Aitor Mendiluze eta Jon Maia bertsolariekin. Izena emateko elkarteak edo Herriko Ostaturan.
- **16:30-18:00.** Erakusketa museoan, Larraulgo egutegiko argazkien aukeraketa.
- **18:00etan.** *Untxi Belarriak ipuina*, Lupe Lekuona ipuin kontalariaren eskutik, kultur etxean.

AZAROAK 27, IGANDEA

- **10:00etan.** Mendi irteera herria ezagutzuz.
- **16:00etan.** Pilota partidak frontoian.
- **16:30-18:00.** Erakusketa museoan, Larraulgo egutegiko argazkien aukeraketa.
- **18:00etan.** Talo eta gaztaina jatea egingo dute Katillu-Txulo elkarteak.

Argazki Rally-ko sariak bihar banatuko dituzte Aizkardi elkarteak

Egoitz Bengoetxeak eta Gotzon Izquierdok eskiari buruzko hitzaldia eskainiko dute gaur, Mendi Astean

A. Imaz Amasa-Villabona

Aizkardi Mendi Elkartearen 28. Mendi Astea aurrera doa, eta IV. Argazki Rally-ko sariak bihar banatuko dituzte. Hala eta guztiz ere, herritarrek argazkirik onena

bozkatzeko aukera izan badute oraindik. Argazkiak www.aizkardi.com helbidean aurkitzen dira ikusgai.

Aurrez, gaurkoan, *Chamonix Zermatt-Saas Fee* eskiz izeneko hitzaldia eskainiko dute Egoitz eta Gotzonek. Hitzaldia 20:00etan hasiko da Gurea zine aretoan.

Bihar, hilak 24, Alberto Zerainen txanda izango da leku eta ordu berean, Everesterako bide-rik laburrenaren inguruan hitz egiteko. Ostirala eta larunbata atseden eguna izango dira.

↓ Egitaraua

GAUR, AZAROAK 23

■ **20:00etan.** *Chamonix Zermatt-Saas Fee* eskiz hitzaldia Gurea zine aretoan.

BIHAR, AZAROAK 24

■ **20:00etan.** Everesterako bide-rik laburrenari buruzko hitzal-

dia Alberto Zerainen eskutik. Gurea zine aretoan.

AZAROAK 27, IGANDEA

■ **08:00etan.** Mendi ibilaldia eta bazkaria. Irteera, Olaederra kiroldegitik irtena. Hitzordua 08:00etan da.

Hemezortzi lanpostu betetzeko langileak behar dituzte

Erredakzioa

Adunako, Alkizako, Larraulgo eta Zizurkilgo udalek, eta Aiztondo Mankomunitateak berak, langileak kontratatu behar dituzte aldi baterako.

Guztira hemezortzi lanpostu izango direla azaldu dute: Ingu-rumen langileak, peoiak, ofizialak, gizarte langileak, administrariak, gizarte eta kultur dinamizatzaileak...

Lan eskaintzako postuen ezaugarriak eta baldintzak ikusteko informazio osatua www.lanbide.net web-orrian jarri dute.

Beharrezko baldintzetako bat, Lanbiden izena emanda egotea da, eta kotizaziopeko prestaziorik ez jasotzea edota diru sarrera bertetzeko errenta jasotzea.

Izena emateko modua Lanbideko bulegoan edo www.lanbide.net web-orrian aurki daiteke.

Izena emateko epea azaroaren 17an zabaldu zuten, eta abenduarren 1era bitartean egongo da.

Hemezortzi lanpostu hauek betetzeko garaian, udaletatik eta mankomunitatetik azaldu dutenez, «lehentasuna Aiztondo Mankomunitatea osatzen duten herritarren erroldatutakoek izango dute; hau da, Adunan, Alkizan, Larraulen eta Zizurkilaren erroldatutakoek».

Seaskaren aldeko egutegia erosteko aukera jarri dute Jesusen Bihotza ikastolan

Erredakzioa

2009-10 ikasturtean Jesusen Bihotza ikastolan derrigorrezko eskolaldia amaitu zuten ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua jasotzera joateko deia egin dute ikastolatik. Horretarako, idazkaritzara joan

beharko dute. Orduetara, 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etarako da.

Ikastolatik azaldu dutenez, ikasle-ohiek joan behar dute bertara titulua jasotzera: «Ezin daiteke beste inor zuen tokian etorri».

Sehaskaren egutegia

Jesusen Bihotza ikastolak bestalde, Seaskaren aldeko egutegiak salgai daudela gogoratu dute, 4 euroren truke. Salmenta lekuak Txermin eta Zizurkil eraikinetan jarri dituzte, tutoreei eskatuta. Zentzuzko eraikinean, idazkari-tzan eskatu behar da.



Egin HITZAren harpidedun

abenduarren 31 baino lehen, eta jaso

MAHALA ekoizlearen produktu sorta hau

OPARI

Bertako informazioari, bertako produktuak



hitza info

Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info

XIX. eta XX. mendeko Alegia

Gaur 19:00etatik 20:30era erakusketa ikusteko aukera izango da; ostiralean antzerkia eskainiko dute

Eneritz Maiz Alegia

Alegia XIX eta XX. mendeak erakusketa ikusgai dago Alegiako kultur etxean. Atzo jarri zuten ikusgai, eta gaur izango da erakusketa ikusteko azken aukera. 19:00etatik 20:30era izango dira atea zabalik ikusi nahi duen guztiarentzat.

Jose Ignazio Iglesiasek prestatu du erakusketa. Zuhaitz genealogikoa egiten hasi zen, eta gustua hartu zion arakatzeari. Alegia, Tolosa edota Donostiako artxiboetatik ateratu du Alegiari lotutako era guztietako informazioa: argazkiak, bertsoak, testuak, lanabesak, planoak,...

Helduentzako antzerkia

Azaroko kultur ekitaldiak aurrera doaz, eta ostiralean, hilaren 25ean, antzerkiak gozatzeko aukera izango da. 22:00etan hasiko



Iglesiasen atzo jarri zuen erakusketa kultur etxean. E.MAIZ

da *Birakabareta* antzezlanaren Intujai antzerki taldearen eskutik. Suanema, Tic-Tac, Berastegiko Antzerki Taldea eta Jon Magic izango dira. Sarrerak dagoeneko salgai jarri dituzte Alegiako kul-

tur etxean. Sarrera bakoitza 3 euro ordaindu beharko da.

Igandean, berriz, Mendi asanbladaren eskutik irteera egingo dute Bedaiaora 08:30ean. Ondoren, bazkaria egingo dute.

→ Laburrak

Eskola Txikietako materiala salgai, eskolan

IKAZTEGIETA Ekinean Larraulen izango den Eskola Txikien festarako prestatu duten materiala salgai jarri dute Ikaztegiako herri eskolan. Gaur eta bihar, 16:00etatik 17:00etara, eskolara joanez materiala erosteko aukera izango da. Gipuzkoako Eskola Txikien koordinakundeak aurten, 25. urteurrena ospatuko du.

Urtegi bisita gidaturako izena eman behar da

IKAZTEGIETA Ostiralean hasiko dituzte Ikaztegiaren udazkeneko kultur ekitaldiak. Larunbaterako, Ibiurko urtegi eta Araztegi bisita gidatua prestatu dute. Bi azpiegiturak barrutik ezagutzeko aukera izango dute ikaztegiarrek, doan. Joan nahi duenak izena eman behar du udaletxera joanez edo 943 65 33 29-ra deituz. Gaurkoa da horretarako azken eguna. 09:30ean aterako dira tren geltokiko aparkalekutik urtegiara, eta kotxeetan joango dira.

Irudia ◊ Aldaba / Urkizu



AUZOEI BIZIA EMANEZ

Aldaban kulturari eskainitako asteburua ospatu zuten. Bideo emanaldia izan zuten eta gaztainak jan zituzten. Lokala bete egin zen. Igandean, bazkaldu ondorengo karta jokoan Pilar Tolosa eta Felixa Emanalde izan ziren irabazle. Ondoren, txokolata eta txurro batzuk jan zituzten. Urkizun bestalde, atzo amaitu zuten sukaldaritza ikastaroa. Sei saio egin dituzte guztira, eta era guztietako gutiziaz prestatu dituzte Amasako Iturri Goxoko Jokin sukaldariarekin. HITZA

Lapurretak ugaritzen ari dira Alegialdeko baserrietan

Obretan dauden baserrietatik material ugari eman dute lapurrek; asteburuetan sartzen dira, batik bat

E. Maiz

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI herritar batek esan dioenez, azken asteetan Alegialdeko herrietan lapurretak ugaritu dira. Bertako jendea ohartarazi nahi

dute, eta zerbait arraroa ikusiz gero, ertzainei deitzeko esan du «guztionean zerbait egin ahal izateko». Herritarrek bere kasua kontatu du: «Gure baserrian aste eta gutxian bi aldiz lapurtu digute. Ez gara bertan bizi, baina obrak egiten ari garela eta, lapurrek ez dute denborarik galdtu». «Lortzeko erraza den materiala bilatzen dute. Obran ditugun kobrezko pieza txikiak, hodiak, argindarraren kableak, ... lapurtu dizkigute», gaineratu du.

Beraiena ordea ez da kasu ba-

karra, eta gertu dagoen eta obratan dauden beste baserri batean ere lapurtu dute. Kasu honetan, «hiru aldiz lapurtzera iritsi dira, eta hauek ere ez dira bertan bizi» gaineratu du. Langarik puskatu gabe sartzen direla adierazi du, eta kotxerik ez dutela gerturatzeko dio. «Oinez igo eta jaisten dira, eta materiala karretiletan eramaten dute», dio. Lapurreta gehienak asteburuan egin dituztela azpimarratu du. Tailer batean ere, lapurreta eginga dutela gogorarazi du.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	13°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Gaur 19:30ean kultur etxean OTA eta aparkalekuen inguruko bilera egingo du udalak. Herritar guztiak gonbidatzen ditu parte hartzera.
- **Villabona.** Aizkardi mendi taldeak antolatutako Mendi Astearen barruan gaur, *Chamonix Zermatt-Saas Fee eskiz* Gurean, 20:00etan.
- **Larraul.** Kultur astearren barruan gaur, *Emakumeekiko errepresioa Frankismoan. Saturrarango adibidea* hitzaldia Ander Leonen eskutik, 19:30ean kultur etxean.
- **Tolosa.** Gaur 19:30ean emakume batzarra egingo du Bilgune Feministak. Taldearen lokalean (Emeterio Arrese plaza) Emakumeen aurkako indarkeria izango dute hizpide.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroan Cannes-ko Arketal talde-tailerrari (Frantzia) eskaintako erakusketa ikusi daiteke otsailaren 12a arte. Kalitate artistiko goreneko 150 pizez osatutako bilduma da.



Lehen saria eskuratu duen argazkia. IDOIA ZABALETA

Bihar da Tolosako egutegia hartzeko azken eguna

Goizean zehar Zerkausion eskuratu daiteke Tolosa Gasak eta Tolargik urtero argitaratzen duten lana

Erredakzioa Tolosa

Kalean da jada Tolosako 2012ko egutegia. Tolosa Gasak eta Tolargik prestatzen dute urtero, herritarren argazkiak bildu eta sailkatu ondoren. Eta jakina denez, datorren urterako *Emakumea eta berdintasuna* izan zen aukeraturako gaia.

Jasotako argazkiak Aranburu jauregian izan ziren ikusgai, eta bertan bisitariek ere euren saria eman ahal izan zuten. Azkenean sariduna Maddi Soroan *Kedada* izeneko argazkia izan da, non emakume talde bat ikusi daitekeen Aranburu jauregiko lorategie-

tan haurrei titia ematen. Sari nagusia berriz, Idoia Zabaletak eskuratu du *Superwoman* izena duen argazkiarengatik. Irudi hauxe da egutegia irekitzen duena.

Egutegiak eskuratzeko azken eguna bihar izango da, hilak 24; 09:30etik 12:30era bitarte egongo dira Zerkausion.

Agurrak



Urte askoan!

Agurtzane Larrañaga (Tolosa). Iritsi da zure urtebetetze eguna. Zorionak eta urte askotarako. Ondo pasa zure senar Iñigo, seme Sugaar eta hor bilduko zareten guztiekin, Ibarra familiaren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak

INKERNU
jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako mozorroak

Gernikako Arbola 1 behea • **TOLOSA** • 943 24 43 64 • elvinkernu@gmail.com

GONBIDAPENA

Maite Lurrindegia, gure zentroan gozatu ditzazkezun **Natura Bissé** luxurko kosmetika etxearen produktu eta tratamendu esklusiboen aurkepena gonbidatu nahi zaitu.

Opari eder bat jaso eta parte hartu hurbiltzen zaretenon artean zozketatuko den Aurpegi Tratamendu baten zozketan. Hurbildu zaitetz.
(Aurkepena azaldu nahi duenak aurretik dei dezala gomendatzen da)

Azaroak 24, Osteguna, 18:00etan ORIA HOTEL-ean
(Oria, 2 - Tolosa - Tel.: 943 654 688)

Gainera, gonbidapen hau gure lurrindegira ekarri gero, Natura Bissé-ko produktu eta tratamendutan %20-ko beharpen bat lortu dezakezu. Promozioak Abenduak 17-rarte iraungo du.

LURRINDEGIA

